

# Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

ANTROPOLOGIA

## Txinpantzeek leizeko freskoa maite dute kanpoan bero denean

IOWA (AEB) UNIBERTSITATEKO Jill Pruetz antropologia irakasleak berri harrigarria eman zuen orain hilabete batzuk: txinpantzeak ehizatzeako lantza erako hainbat tresna erabiltzen ari ziren. Albistea Afrikatik eman zuen, bertan, Senegalgo Fongolia eremuan ari baitzen behaketak-eta egiten; berriki azken hilabeteotako lanaren emaitza kaleratu du. Esan duenez, txinpantzeek leizeak erabiltzen dituzte bero handitik babesteko.

2004ko hondarrean konturatu zen zientzialaria txinpantzeek leizeak erabiltzen dituztela. Jaki-hondarrak, kakak, ileak eta gisako arrastoak aurkitu zituen aurrena Pruetzek. Gero ordea froga zuzenak lortu ditu, txinpantzeak ikusi baititu leizetara sar-



Txinpantzeak leize atarian.

tzen. Txinpantzeek Sakoto deitu leizea erabiltzen dute urria eta maiatza bitartean; Senegalen eguraldia urteko beroena eta lehorrena den sasoiaren.

Leizean 24,2 °C-ko tenperatura ederra zuten; leizetik 20 metrora dagoen basoko batezbesteko tenperatura ia 30 °C-koa zen. Alde ederreko freskura lei-

## Osasuna

JABIER AGIRRE

## Emakumeak okerrago eta gehiago bizi dira



**BULARRETO ANGINA** edo miokardio-ko infartua bezalako gaitzak beranduago diagnostikatzen dira, normalean, emakumeetan gizonaetako baino, pazienteak urte gehiago dituenengan alegia. Horixe da *Osasuna eta Generoa* izeneko txostenaren konklusioetako bat. Espainiako Emakumearen Osasun Behatokiaren ekimenez egin dute ikerketa eta bertan adierazten denez, mina sentitzean emakumea osasun zentro batera beranduago joatea izaten da diagnostikoa atzeratzearen arrazoietako bat. Izan ere, bularreko mina pilatutako tentsioaren sintoma bezala interpretatu ohi du emakume askok.

**Japoniakoak, emakumeen artean gehien bizi direnak.** Txostenak dio emakumeak urte gehiago bizi direla

gizonezkoak baino —gauza jakina da bizi-itxaropena handiagoa dutela emazteek, bost bat urteko aldearekin azken inkestean arabera—, baina bi sexuek ez dute bizi-kalitate bera; gizonezkoek ordu gehiago hartzen dituzte kirola egiteko, gainera ordu gehiago egiten dituzte lotan. Emakumeak, berriz, etxeko lanetan arduratzen dira gehienbat, kasu askotan etxetik kanpo ere lan egin arren.

Egoera horrek emakumeengan eragiten duen gaitz fisiko eta emozionalak ondorio negatiboak dauzka beren osasunean, *Osasuna eta Generoa* lanak iradokitzen duenez. Horrez gain, txostenak dio bai gizonaetako baino emakumeetan heriotza gehien sorrarazten dituzten gaixotasunak arazo kardiobaskularrak eta minbizia direla; bularreko minbizia izanik heriotz gehien ekartzen duena.

zeko gerizpetan. Zehatz-mehatz esanda, txinpantzeak janaria hartu eta leizera jatera sartzen dira eta digestioa egin arte bertan izaten dira.

Aurkikuntza honen garrantzia ondoko ideia honetan datza: gizakia zerbaiten eboluzioa dela jakin badakigu eta zerbait hori basoetan bizi izan zela hasieran ere bai. Eta eboluzioaren poderioz, bizimodu erosoagoen bila, leizetara joan zela ere ezaguna denez, txinpantzeak antzeko bidean abiatu ote dira? **I**

## KLIMA

## Ipar poloa uste baino azkarrago ari da urtzen

**IZOTZIK GABEKO UDAK** uste baino lehenago eza-gutuko ditugu Julianne Stroeve eta Mark Serreze ikerlariei sinestera. Baieztapena egiteko alderaketa egin dute; batetik klimaren azterketarako gobernu arteko taldeak (GIEC) aztertutako hemezortzi eredu klimatiko hartu dituzte eta bestetik hegazkinak, itsasontziek eta sateliteek hartutako datuak.

Urtero-urtero irailean, izotz-geruzak tamainarik txikiena izaten duenean, neurketak egiten dituzte. Bada GIEC-n arabera 1953-2006 tartean izotz geruzak hamarkadako %2,5eko galera izan du GIEC-n arabera. Arestian aipatu ikerlariaren arabera, ordea, hamarkadako galera %7,8koa da.

Martxoan izotz-geruzak urte osoko azalera maximoa izaten du, eta urte sasoi horretan izotz eremuek izandako bilakaeraz ere datu diferentiek eman dituzte bi taldeek.

Ikerketak aurrera jarraitzen du eta datozen urteotan, izotz gutxiago izango dugu; gauzak argixeago izango al ditugu behintzat. **I**

Zientzialarien trepetak Ipar poloa.



## Emana finitzen da

**HONETATIK IA JOANDA**, beste mundu batean bizi dut azken gau eta egun zortzikotea. Amai-bidea omen bakarra eta kontent, irrikaz; leihotik dakusadan libanoar zedro parearen adarjeak, udaberriko soinekoa berritzen, naraman galeoiaren masteleroen sokaje jartzia jartzea ezagutuz, irrikaz.

Gaurkoan odolak soilik xirripiztintzen duen beste mundu xuri honetako arierak bizikletan ibiltzera garamatza. Aldamenean Epifanio, ni halako bi bizitakoa, sekula bizikletara igo eta zikilixta izan gabekoa! Haur-arte honek nire bizitzako une onenetara narama. Hasieraren amaia zen haur hartara, baratzeko pikupeko altzora. Oraingo amaiaren hasieran, bizikletarako bidean piko harro bat ageri da Urumea errio denaren gaineko ia ehuneko infinituko isuria duen pendiz baten muturrean uztapikuz beteta. Pikondo antzua, txertatua gisa, adarretik, sexurik gabe ugaldua. Eta horretara jarria, ondorengorik izango badu gure eskuen beharrean den pikoa, pikondo gajoa. Horra amaia, txertoarenaren tankerakoa, fruitua urtean behinekoa gutxitxo eta bitan eta oparo eman: udaberriaren uztapikua eta udazkenean piko. Ez batzuek ez besteek hazi arrastorik ez, ordea. Bere espeziea ahantzita, gure zerbitzari hutsera eramana dugu eta bera geurera eman eta eman eta eman. Ugaltzeko adarra moztu eta landatuta nahikoa, beharrezko gaituenak, hazirik eman behar ez. Galeraren abiera.



Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Soluzioak Zerbitzuak

Erremintak

**Adur SOFTWARE PRODUCTIONS**

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)  
Industriaidea 1, 20160 Lesaitze-Oria  
Tel. 943.37.18.48  
e-mail: adur@adur.com

**INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA**